DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN AnD.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzarrak, 2024ko irailaren 5ean izan zuen ohiz kanpoko eta premiazko bilkuran, erakunde adierazpen hau onartu zuela, aho batez:

***"Donostian izan den azken sexu erasoaren aurrean egiten dugun adierazpen instituzionala***

*Azken orduetan Donostian izan den sexu erasoaren aurrean Udalak honako hau adierazten du:*

*1. Udalak erabateko irmotasunez gaitzesten du gure bizilagunak jasandako erasoa. Gure hirian gertatutako indarkeria matxistak eragindako beste gertaera bat izan da.*

*2. Babesa eta elkartasuna adierazi nahi dio eraso tamalgarri honen biktimari, bai eta bere familia eta hurbileko ingurukoei ere. Udalak indarkeria-egoerak pairatzen dituzten edo pairatu dituzten emakume guztiei jakinarazten die laguntza behar eta nahi izanez gero Udalak dituen zerbitzu eta baliabideetara jo dezaketela.*

*3. Mota honetako erasoak gure gizartean oraindik nagusi diren indarkeria matxistaren eta genero desberdintasuneko jarreren adierazpenik higuingarrienak dira eta Udalak guztiz gaitzesten ditu. Ezinbestekoa da lanean jarraitzea, gizarte, mugimendu feminista eta hiriko giza eragileekin batera, balioetan oinarritutako heziketaren eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde. Eta sexuen hezkuntza lantzea, horiek kudeatzeko trebetasunak eta baliabideak emateko. Beharrezkoa da, halaber, azpimarratzea horrelako jarrerak eragiten dituzten faktoreetan egunez egun esku hartzen jarraitu behar dela.*

*4. Udalak hiritarrei dei egiten die ostiralean, hilak 6an, 12:30ean, Alderdiederreko lorategian egingo den gaitzespen bilkuran parte hartzera.*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión extrordinaria y urgente celebrada el 5 de septiembre de 2024, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

***"Declaración institucional ante la última agresión sexual en Donostia / San Sebastián***

*Tras la agresión sexual que ha tenido lugar en las últimas horas en Donostia / San Sebastián, el Ayuntamiento quiere manifestar:*

*1. Su más rotunda condena de la agresión sufrida por nuestra vecina, en un nuevo episodio de violencia machista ocurrido en nuestra ciudad.*

*2. Su apoyo y solidaridad con la víctima de esta lamentable agresión, así como a sus familiares y entorno cercano. El Ayuntamiento informa a todas aquellas mujeres que sufren o han sufrido situaciones de violencia, que si necesitan y desean ayuda pueden acudir a los servicios y recursos que dispone el Ayuntamiento.*

*3. Este tipo de agresiones son la expresión más repugnante de la violencia machista y de las actitudes de desigualdad de género que aún imperan en nuestra sociedad y que desde el Ayuntamiento condenamos. Es imprescindible seguir trabajando, junto con los agentes sociales, feministas y humanos de la ciudad, por la educación en valores y la igualdad entre hombres y mujeres. Y trabajar la educación de sexos para dotarles de habilidades y recursos para gestionarlos. También es necesario insistir en la necesidad de seguir interviniendo día a día en los factores que provocan este tipo de actitudes.*

*4. El Ayuntamiento convoca para el viernes, 6 de septiembre, a las 12:30h, una concentración de repulsa en Alderdieder, y hace un llamamiento a toda la ciudadania para manifestarse en contra de este tipo de hechos.*

1074On XVII

*5. Udalak gaitzespena adierazteko hirian egiten diren deialdiekin bat egiten du".*
==================================

*5. El Ayuntamiento se suma a las convocatorias de repulsa que se realicen en la ciudad".*
====================================

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**